







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %3,9 egin zuen gora urtarrilean, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2,8 igo zen eta etxekoan %12,3; hirugarren sektorean edo zerbitzuetan, berriz, %0,3 jaitsi zen.

Azken hamabi hilabeteetan metatutako kontsumoak %4,5 egin zuen behera, aurreko epealdiarekin alderatuta; etxeko sektorean %0,3 jaitsi zen, industrian %8 eta zerbitzu arloan, ordea, %0,5 igo zen.

Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: garraiobideen eraikuntza (+%7,8), burdinazkoa ez den metalurgia (+%6,6), kautxuzko eratorriak (+%4,5) eta kimikoa (+%3). Behera egin zuten sektoreak, gehienbat, siderurgiaren (-%20,3) eraginez izan zen.

Gas naturala

Urtarrilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %23,5 egin zuen gora, 2016ko urtarrilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %15,9 igo zen eta gainerako sektoreena %24,6.

Azken hamabi hilabeteetan metatutako kontsumoak %3,7 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (-%19,8 CCTT-n eta -%0,2 gainerako sektoretan).







Erregaiak garraioan

Abenduan, garraioan erregaien kontsumoa %3,7 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %0,6 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %4,3 egin zuen gora.

2016ko kontsumoa %4,7 igo zen, 2015ekoarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %1,4 egin zuen gora eta A gasolioarenak %5,1.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Urtarrilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 96,1 milioi kupel izan zen (2016ko urtarrilean izandakoaren aldean, %2,1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %5 egin zuen gora kontsumoak, 13,6 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,1 egin zuen gora, eta 12,7 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, ordea, %0,2 jaitsi zen, eta 19 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, Txinan %3,1, AEBetan %0,2 eta Europar Batasunean %2,1.






Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %24,3 egin zuen gora urtarrilean, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Sektore elektrikoan %42,1 igo zen. Azken hamabi hilabeteetan metatutako kontsumoak %7,9 egin zuen gora.

Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen urtarrilean, %7,2, 2016ko urtarrilean izandakoaren aldean. Urte mugikorraren kontsumoak %1,5 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %0,7 egin zuen behera abenduan, 2015eko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %1,5 jaitsi zen eta gasolioena %0,5. 2016ko kontsumoak %3 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%2,3 igo zen gasolinena eta %3,2 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %15,6 egin zuen gora abenduan, eta 2016ko kontsumoa %7,1 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestautua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 54,9\$ (51,7€) izan zen urtarrilean. Urtebetearen prezioa %78,2 egin zuen gora (%82,4 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 71,5 €/MWh izan zen urtarrilean; duela urtebete zegoenaren aldean, %95,7 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 17,6 €/MWh izan zen abenduan, eta %3,9 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urtarrilean, EGIX-en prezioa 20,6 €/MWh izan zen (2016ko urtarrilean izandakoarekin alderatuta, %50,6 igo zen).

Spot merkatuetan, urtarrilean Henry Hub-en prezioa 10,5 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 23,5 €/MWh (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, %46,9 egin zuen gora eta %5,4 egin zuen behera, hurrenez hurren).

Erregaiaren prezioa

EAEn, abenduan, gasolioaren prezioa 1,09 €/l izan zen (urtebetearen %11,9 igo da), eta gasolinarena 1,19 €/l (urtebetearen %6,7 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,26 €/t izan zen urtarrilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %24,7 jaitsi da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.